



Osakidetza

ARABAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ARABA



FAMILIENTZAKO INFORMAZIOA

PEDIATRIAKO EGUNEKO OSPITALEKO ENDOKRINO-PROBAK: GLUKOSAREN AHO BIDEZKO GAINKARGA

Zertan datza proba?

Unitatean sartzean, 150. gelan kokatuko da, haurra pisatuko da, konstanteak hartuko zaizkio eta zain-bide bat bideratuko zaio.

Haurrak glukosa duen edari prestatu bat hartu beharko du. Ondoren, hainbat odol-ateratze egiten dira denbora jakin batzuetan. Proba 3 ordura arte atzeratu daiteke.

Ez du aurreikus daitekeen ondorio negatiborik eragiten.

Nola prestatu behar da proba?

Proba egin aurretik ez da dieta berezirik egin behar.

Proba egin aurreko egunean 10-16 orduko baraualdia behar da (ura edan ahal izango da).

Ospitalera joan baino ordubete lehenago, EMLA krema eman behar zaio haurrari besoen bi tolesturetan (bete EMLA kremaren jarraibideak).